

Nafarroa Karria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko ekainaren 9a / VI. urtea / 182. zenbakia

Baztan-Bidasoan Errepublika eta 1936ko gerra garaiko giroa eta testigantzak jasotzen dituen liburua aurkeztu zen joan den astean Lekarozko Institutuan, egileak -ikastetxeko irakasleak eta ikasleak- bertan zirela. 'Zubietako 1931-1936. Errepublika eta 1936ko gerra Baztan-Bidasoan' izeneko, Luma Irungo argitaletxeak karrikaratu du, eta bertan azaltzen dira hiru zubietarren lekukotasunak, hainbat herritan egindako galdetegiaren erantzunetatik at-

Baztan-Bidasoa: 1931-1936

ratako ondorioak eta Zubietako eta Iruñeko hainbat arxivotatik ateratako idazkiak. Orduko urteei buruzko ideia, sikiera apala, islatzeak duen garrantziaz gain, metodologia azpimarratu dute egileek liburua aurkeztean. Izan ere, belaunaldien ar-

teko harremanak sendotzeko proiektu bati esker jaio baita garai hau jorrazteko ideia, eta, hori dela medio, ikasleek aukera izan dute ohartarazteko historia ez dela bakarrik historia liburuetan azaltzen dena, baina inguruarekin lotuta dagoen zerbait bizia.



Errepublika garaiko Zubietako eskolako umeak.

Beterri, behelaldeko herria, versus goierri, goian dagoena. Euskal Herriko makina bat tokitan omen daude honelako bikoteak. Esango nuke ia Euskal Herriaren osotasunerako balio duela kontraktotasunak; Nafarroako, behintzat, bai, bistan da: Montañesak eta erriberanoak beti izan dira hemen moneda baten alderdiak bezala: beti elkarrekin eta beti elkarri bizkarrez. Euskarak Nafarroan izan duen hedadura handienaren lerroa erliebezko mapa batean segitzen bada, berehala ikusten da euskararen hasierak ia esa-

kto kointziditzen duela terenoaren moldatze eta malkartzearekin.

Eta hara: hauteskunde ondoan, aditzen ditudanean Nafarroako abertzaleen deitore-negarrak (pribatuak; jendaurren, noski, denak garaile), Erriberako deskalabro totalaren aurrean, honela hasi ohi naiz nere buruan: ez ote du horek zerikusiren bat Erriberakoei produktu politiko gisa goierritasun bat saldu

Begi itxi-irekia

MATIAS MUJICA



Beterri

nahi izatearekin, eta ez hainbeste kanpoko indar demoniakoen oldarrarekin (nahiz bigarren espikazio hau errazagoa den eta autokritika gutxiago eskatzen duen)? Joan dira haiengana, berterritar, zelai-jende, erdaldun huts diren, eta hala izateaz pozozik dauden, eta hala izateko eskubide guztia duten horiengana, eta kontatu diete haiek ere euskaldun direla, menditar, goierri jende, (euskalduntasuna

nolabaiteko perfekzio puntu bat balitz bezala giza jeneroaren bilakaeran, iritzi guztiz arrazista, bidenabar esan). Eta haiek sinistu ez, aizu. Eta gu harritu.

Ez dut nik esango Euskadiren proiektu politikoak nolakoa izan beharko duen, baina proiektu horretan Nafarroako Erribera, eta Euskal Herriko beste erriberak kabituko badira, utzi beharko diogu agian haiei kopla freskoak eta gezur begibista-koak saltzeko hartu dugun seta ergelari. Orduan igual bilatuko dugu modua elkarretarazteko. Moneda bateko bi alderdiak bezala, noski.

GURE AUKERAK

ANTZERKIA



'Xarivari' izenburuko antzezlan taularatuko du asteburu honetan Teatre Mobil taldeak Zudairi eta Azterain herrietan. Udaberriko Bira programaren barruan, larunbatean Zudairin izanen dira, arratsaldeko 6.30etan eskolan. Igandean, berriz, Azteraingo pilotalekuan ariko dira, eguerdiko 13.00tik aurrera.

Setrill Teatro taldeak 'O.D.U. Salvemos la tierra' izenburuko antzezlan taularatuko du asteburu honetan Zubiri eta Abartzuza herrietan. Bihar larunbata Zubiriko eskoletan ariko dira, arratsaldeko 7.00etan eta igandean, berriz, Abartzuzako plazan, ordu berean.

MUSIKA



'November Quartet' jazz musika taldeak kontzertua eskainiko du gaur ostirala, ekainak 9, Atarrabiako Antso VI. Jakitunaren Enparantzan. Herriko udalak hilabete honetarako antolatu dituen musika ekitaldien artean kokatua, arratsaldeko 8.30etan hasiko da.

'Biohazard' eta 'Orange 9 m.m.' musika taldeek kontzertua eskainiko dute igande honetan, ekainak 11, Lakuntzako Matraka dantza lekuan. Musika emanaldia arratsaldeko 8.30etan hasiko da 'Orange 9 m.m.' taldearekin, eta ordu berean 'Biohazard' taldeak joko du.

7 Eskale taldeak 'Bertso berriak pobreziari jarriak' izenburuko musika ikuskizuna eskainiko du gaur ostirala, ekainak 9, Beteluko polikiroldegian. Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariek eta Josu Zabala 'Hertzainak' taldeko kide ohiak, lau musikariek batera, emanaldi berezia eskainiko dute gaueko 10.30etatik aurrera.

BESTELAKOAK



Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa antolatu da hilabete honetarako Iruñeko Gaztetxean. Zehazki, ekainaren 19a, 21a eta 23an izanen da, Gaztetxean bertan, arratsaldeko 5.30etatik 7.30etara. Ekainaren 16 baino lehen eman daiteke izena Gaztetxekeo tabernan.

Lizarrusti eta Baraibar inguruak zeharkatuko dituen mendi bizikleta marxa antolatu du Nafarroa Kirol Elkarteak heldu den iganderako, hilak 11. Irteera goizeko 8.00etan izanen da, Insalud-en atarian eta bertan partehartu nahi dutenek Elkartera joan (Jarauta 78) edo 22 43 24 telefonora dei dezakete.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Harro-harro

A zer komeriak orain lau urte, indar politikoen artekoak, Lehendakaria nor eta nork jarriko. Gogoratzen? Lau urte beranduago, badirudi Alli lehendakari jarri omen zutenen kontra kalaka eta matraka galanta eman duten indar politikoko horiek beroriek, eremu guztia otitis jota uzteraino gauza bera errepikatu dutenak, gortu egin gaituzten horiek beroriek, kon-

kak jakinarazi digu euskararen atzerapena eten egin dela, eta berreskuratze prozesu herabea hasi dela. Datua pozgarria da, pozgarria beharko luke. Edo, Zuzendaritza Nagusiak bere burua zuritu du, gutxienez. Jakinarazi digu, halaber, eremu mistoa deitzen den honetan hasi zela, aspaldi, euskararen berreskuratze saioa. San Francisco eskolan 'D' ereduja jartzea,

San Francisco eskolan 'D' bat sortu nahi eta haur bat falta dutela aitzakian ezin duten guraso horien pare. Edo, esan liteke baita ere, Mendillorri hama lau haurrekin gauza bera lortu duten gurasoen pare. Aldaketak aurrerapena omen zekarren. Eskubide oinarrikoen nahi bezala, arbitrarioki, banatzea aurrerapena, progresismoa da?



forme azaldu direla Allirekin ituna egiteko, progresismoaren izenean. Zergatik izkutatu ziguten orain lau urte Alli progresista dela? Edo, orduan ez baziguten ezer izkutatu, zergatik daude prest orain eskuinarekin ituna egiteko? Alli, lau urteko epean, utzi al dio eskuina izateari eta progresista bihurtu da? Alli eskuin progresistaren ordezkari al da? Nork ordainduko ditu otorrinoren fakturak?

Nafarroako Hizkuntz Politi-

haur bat falta dutela aitzakian, debekatzen duten eremu misto berean.

Noren ahaleginari esker edo zeri esker lortu da, hortaz, berreskuratze herabe hori? Hainbeste denbora ez dela, bere burua euskaltzaletzat duen Nafarroako gizartearen partean, hain zuzen, sekulako eztabaida izan zen, euskararen legearen aldaketa zela eta. Aldaketak eremu ez euskalduneko gurasoak eremu mistoko gurasoen pare jarri nahi zituen.

Azkenik, ETB ikusi ahal izango da eremu guztian. Nori eta Alliri esker. Noren merituzerrendan apuntatu beharko dugu tantoa? Eskuina boterean jarri omen zutenen? Itun progresista izenpetu nahi omen dutenenean? Edo Alliren beste keinu bat baino ez da? Nori egindakoa? Bere buruari? Guri? Nor gara gu?... itunaren eremu latza honetan egin daitezkeen itaunak absurdoraino pilotzen dira. Itunaren eremu, itaunaren.

ASTEKO PERTSONAIAK



Dick Rekalde
Artista



Borja Osés
Txirrindularia

Dick Rekalde margolari eta eskultore nafarraren erakusketa zabaldu zuen joan den asteazkenean Kribia erakustaretoak eta hilaren amaierara arte egongo da ikusgai. Dick Rekaldek Arte Ederrak ikasi zituen Euskal Herriko Unibertsitatean eta Principe de Viana erakundearen eskutik jasotako bekari esker, Berlinen izan zen hiru urte baino gehiago ikasten. Iruñean, 1991. urtean egin zuen azken erakusketa, Nafarroako Jaialdien saria irabazi ondoren. Orduz geroztik, Bartzelona, Donostia, Madril, Zaragoza eta beste hainbat lekutan aurkeztu du bere lana eta Arcon ere behin baino gehiagotan izan da. Zabaldu berri den erakusketan iaz eta aurtengo bederatzi obra bildu ditu Dick Rekaldek.

Hama lau urte besterik ez zituenean hil da Borja Osés Etxeberria Arronizko gaztea, Kadeteentzako Euskadiko Txapelketan partehartzen ari zenean. Anotz herritik pasatu eta inguruan zegoen zubi batetik behera erori zen txirrindulari gaztea, bizikleta eta guzti, eta harri bat jo ondoren bizia galdu zuen. Txirrindularitza zen bere ilusiorik handiena eta aspaldi ari zen La Moderna Lizarrako taldearekin korritzen. Igandean izan zen istripua, eguerdiko 12etan, eta ordutik une larriak bizi izan ziren lasterketan zeudenen artean. Astelehena dolu eguna izan zen txirrindularitzaren munduan Nafarroan, eta kasu berean hil edo larri zaurituak suertatu diren beste txirrindulari batzuk gogoratu ziren.

IBILALDIA



Baztan Aranako II. Ibilaldia ospatuko da igande honetan, ekainak 11, Arizkun herrian, Baztango Mendigoizaleak elkarteak antolatutik. Martxan arazoak izan ez daitezzen, arau batzuk atera ditu aipaturako Elkarteak. Batetik, ibilaldian parte harteko 500 pezeta ordaindu behar dira eta bertan 17 urte goitiko mendizaleek soilik ager daitezke. Irteera, esan bezala, Arizkun izaneñ da, eta hango kontrol postuan partehartzaile bakoitzari dagokion txartela emanen zaio, ondorengo kontrol postuetan erakusteko. Lehenengo taldearen ateraldia goizeko seietan izango da eta bidea behar bezala seinalatua egonen da. Ibilaldi honetan ez da inolako sailkapenik egongo eta amaieran Diploma bana emanen zaie finkatutako denboretan kontrol postu guztietatik pasa direnei. Era berean, antolatzaileek osasun postuak jarriko dituzte bidean barna, eta haiegan edozein unetan behar laguntzak eskainiko dira.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazkenean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Tafalla



25 urte hauetan Tafallako bizitzan eragina izan du ikastolak.

Ikastolaren egun handia igandean

TAFALLA

Garces de los Fayos Ikastolaren 25. urteurrena ospatuko da igande honetan, hilak 11, Tafallan, joan den asteburuan Baztango Ikastolak berea ospatu zuen bezala. Gogoratu behar da aurten Nafarroako ikastolen urtea dela, bi hauekin batera San Fermin Paz de Ziganda eta Etxarriko ikastolek ere urtebetetzea ospatuko baitute 1995ean. Igande honetan, zuzen esanda, urtebetetze honen ospakizunen azken emanaldia izango da, aste honetan zehar hainbat ekitaldi egin baitira Zidakos ondoko herrian. Esate baterako, 'Euskara

gure eskualdean' izeneko hitzaldia eman zuten Patxi Salaberri, Jose Maria Jimeno Jurio eta Pedro Mari Flamarique historialariek joan den asteartean, Tafallako Kultur Etxean.

Asteburu honetan piztuko da, ordea, antolatzaileek urte osoan zehar prestaturiko kandela, ospakizun garrantzitsuak izango baitira, gaur hasita. Arratsaldeko zortzietan, horrela, bertso saioa izango da ikastolan, eta bertan Unai Iturriaga, Maddalen Lujanbio, Irazu eta Estitxu Arozena izango dira. Larunbatean, 11etan, txistorrada izango da duela urte zenbait ikasleek ehun zuhaitz landatu zituzten tokian,

eta arratsaldeko 6etan futbol partidua antolatu da Osasunako berteranoen eta ikastolako gurasoen artean. 21.00etan gaiteroak izango dira eta ondoren zezenzuzko.

Igandea izango da, nolana ere, egun garrantzitsuena, eta 10etan izango dira dianak. Ondoren suziriak, eta, 11.30etan, Uxo Abesbatzak eta Ikastolako Abesbatzak eskainitako emanaldia. Dantza taldeak eta erraldoiak izanen dira bazkaria bitarteko tartean, eta ondoren, trikitilariak eta Modestok jostaturik, mahai baten ondoan bilduko dira 25 urte hauetan hainbeste ahalegin egindakoak.

Bera

D'Abbadieren etorrera antzeztuko du Lamixine taldeak Lore Jokoetan

BERA

Lore Jokoen medeurrena dela eta, erabat osatuta dago jada Beran heldu den asteburuan—hilak 17 eta 18—, izango diren ekitaldien egitaraua. Berako Euskara Batzordea eta Lamixine Antzerki Taldea izan dira antolatzaileak, eta Udalaren, Bianako Printzea Erakundearen eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntza izan dute horretarako.

Lore Jokoen sustatzailea, jakina den bezala, Antoine D'Abbadie izan zen. Dublinen (Irlanda) jaio zen 1810ean euskaltzale handia izan zen D'Abbadie, eta lehendabiziko Euskal Bestak Urruñan (Lapur-

di) antolatu zituen 1853an. Handik aurrera Euskal Herrian barrena zabaldu ziren ospakizunak eta 1880an Berara heldu ziren. Hortik aurrera Lore Jokoak izan zuten ospakizunak izena, eta 1885ean berriro Bortzirietako herrian izan ziren.

Heldu den ostiralean, ekainak 17, Liburu Kankailuaren aurkezpena egingo da arratsaldeko 5etan Berako Kultur Etxean. Horretarako herriko hiru eskoletako haurrak azkeneko bi hilabete hauetan prestatzen ari dira aurkezpena eta liburu honen hiru gai jorratuko ditu: literatura eta margoketa, bertsojaritza eta dantza.

Hurrengo egunean, hilak 18, 'D'Abbadieren etorrera' ospatu-

ko da, Lamixine Berako Antzerki Taldeak antzeztuta. Berako hainbat talde—Gure Txokoko dantzariak eta gaiteroak, Berako abesbatza, trikitilariak, bertsolariak, txistulariak, Zizkuitz txaranga—, ariko dira ikuskizun honetan. Arratsaldeko 5etan izango da eta Altxateko Plazan alkateak ongi etorria emanen die. Herriko leku berezietan geldituko dira eta Herriko Etxetik diskurtsoa egin ondoren, alkateak Berako elkarteak eta beren lanak aurkeztuko dizkio. Ondotik, Berako Kultur Etxera joanen dira guztiak.

Han banatuko dira aurtengo sariak, aurkeztu diren 46 idazlaren artean onenak aukeratu ondoren.

Eunate

Izarbeibarko Euskararen Eguna igandean

GARES

Ekaina jaio orduko, eguraldi onarekin batera, hasten dira han-hemenka herrietako jaiak eta ospakizunak, oinarri bera duten egun berezi eta erakargarriak. Herrietako jaiak nagusitasuna kendu gabe, baina nortasun propioarekin, azken urteotan zizak maiatzean bezala ugalduta dira nonahi euskararen eta ibarraren egunak. Baztandarren Biltzarrak markatu zuen ereduari segituz, gutxi dira egun beren ospakizuna antolatu ez duten Nafarroako ibarrak edo alderdiak. Eta lehendabizikoak, garaia hasiera emateko, asteburu honetan ospatuko dira.

Eunatean, esaterako, Izarbeibarko Euskararen eguna izanen da heldu den igandean, hilak 11. Eguna Garesen jaio eta Eunate-raino abiatuko den bizikleta martxa batekin hasiko da, goizeko 11etatik aurrera. Obanosetik igaroko da 11.20an eta Muruzabaletik 11.30etan, eguerdi aldera erromanikoaren bitxia den Eunateko elizara iristeko. Han dantzariak, txalapartariak, herri kirolak, hankapaloak, erakusketak eta haur jolasak izango dira, eta 14.30etan, herri bazkaria. Arratsaldeko 4etan pailazoak izanen dira jostagarri.

Asteburu honetan ere Ollaren Eguna izango da Anotzen, eta bertan izango du bere tokia euskarak, elebiduna izango baita Zirko Ttipiak haurrak alaitzeko igandeko arratsaldeko zortzietan eskainiko duen 'Hau Txandria!' lana. Larunbatean izango dira, hala ere, lehen ospakizunak, afaria eta dantzaldia Iturrama orkestrarekin izango baita Anotzen. Igandean 10.30etan hasiko dira ospakizunak, Mikel Aingearuari egingo zaion harrearekin. 11etan meza izango da, eta ondoren gilbor-zopak eta hamaiketakoak. 12.30etatik 14.30tara hurrendako jokuak izango dira, eta La kalba eta igela jokuak. 3etan bazkariari hasiera emango zaio, eta trikitixak izango dira jendea jostatzeko. Hortik aurrera hurrentzako joku ugari prestatu dituzte antolatzaileek.

Bestalde, Berueten Basaburuko Eguna ospatuko da bihar larunbata, hilak 10, Jauntsarasko Ireber Alkartzeak antolatuta. Arratsaldeko bostetan Popi eta Zaratrako pailazoak antzerki emankizuna eskainiko dute, eta bi ordu beranduago aizkolarien emanaldia izango da. Barbarena-Mindegia Senosiain-Lopezek aurka. 20.30etan Lesakako Tantiurumairu Ikastolako dantzariak dantzaldia eskainiko dute, eta 22etan herri afaria izanen da.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Motinak

Eskarmentu handieneko presoek diotenez, 40 urte dituztelarik jada 20 kartzelan eman dituzten presoan arabera, kartzelak egun ez dira arestian zirena. 70. hamarkadaren hondarrean, COPEL (Preso Borrokalarien Koordinakundea) akitzeko, gobernuak permiso eta erredentzioen sistema jarri zuen martxan, txantaiaren sistema, hain zuzen ere: ongi portatzen bazara fite karrikatutako zaitugu; espetxe triste, zikin eta ilun hau aldatzeko borrokatzen baduzu, aldiz, tristuran, zikintasunean eta iluntasunean murgildurik ustelduko zara. Akabo motinak, eta horiekin batera akabo elkartasuna, duintasuna, akabo dena.

Halere, tarteka marteka, oraindik ere motinetan aritzeko grina pizten da presoengan. Kartzela gogorra da, baina eduki baiditu bere une izugarri atseginak. Joan den igande goiza horietako bat zen. Ekaineko eguzkiak go-



gor jotzen zuen, baina hego haize epel eta goxoari esker beroa ez zen gehiegizkoa. Ni patioan nintzen, praka motzetan, etzanda, eta lagunekin batera bazkal aurretik bermuta hartzen ari nintzen: freskagarri bat, olibak eta patata frijituak. Tumatxa.

Han, paradisuan ginela, alta, Kaponata ezizenez ezaguna den funtzionario gugana hurbildu zen, eta ziegara igotzeko ordua zela esan zigun. 'Motina! Motina!' pentsatu zuen ene burmuinak, eta segituan ahoz ahozko motinari ekiteko agindu zion: «Horrelako eguraldia dagoelarik bazkaria hemen eman zenezaketen». Kaponatak: «Bai, mahaitxo batzuk jar genitzake, guardasol eta guzti, eta Martini iragarkitxoak bezalako zerbitzari erakargarri batzuk». Nik: «Beno, horrenbeste ez dugu eskatzen. Behingoz, funtzionarioek lan egin zenezaketen, eta freskagarriak zuek banatu: funtzionario, bi garagardo!». Kaponatak: «Hombre! behingoz zerbait edukazioz eta faborez eskatuko zenuten!». Burmuinak: «Touche! Akabo motina» pentsatu, eta hankei ziegarrantz abiatzeko agindua eman zien.

Kanpotik etorri zen gerra

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Mitifikazioeraino heltzen diren gertaera orotan jazotzen den bezala, Errepublika eta 36ko gerraren historia ofizialaren eta benetako historiaren alde handi samarra izan zen Baztan-Bidasoan. Bortzirietan izan ezik ia oso-osorik nekazal zen inguru honetan ideologia estalirik, gordea egon zen eta, batzuetan, «non tokatu, han ari» fenomeno nabarmen nagusitu zen Zugarramurdi Beraraino. Hauexek dira joan den astean Lekarozko Institutuan aurkeztu zen 'Zubietan 1931-1936. Errepublika eta 1936ko gerra Baztan-Bidasoan' liburutik atera daitezkeen ondorio azpimarragarriak. Bazter hau hala gelditu zen, bazter, eta Nafarroako beste zonatan urte hauek tentsio handikoak eta jendearen gogoan betirako gordezekoak izan baziren ere, iparraldeko puska honengan ez zuten eragin handirik izan, salbuespenak salbuespen.

Lekukoen testigantzak eta artxibo ezberdinetatik ateratako idazki eta dokumentuak nahastu dira lan honen osaketa lanean, baina funtsezkoa izan da, egileen ustez, horretarako erabili den metodologia. Lanarekin abiatzeko asmoa La Caixa Fundazioak prestatutako egitasmo baten bidez sortu zen, belaualdi ezberdinen arteko harremanak sendotzeko proiektuan deialdia plazaratu baitzuen erakunde kataluniarrak. Lekarozko Institutuan bide polita ikusi zen hor gazteek egun ia ezegazuna duten

Baztan-Bidasoan eragin gutxi gora izan zen Errepublika eta 36ko gerra bitartekoa, eta ez zen bertan munta handiko gertakizunik gertatu. Oro har, esan daiteke ikusle pasiboak izan zirela inguruko biztanleak Nafarroan tentsio handia zegoen urte haietan, eta soilik Beran eta Lesakan sumatu ziren ondorio eraginkorrak, batez ere Irungo San Martzial mendian errepublikazale eta nazionalisten arteko borroka latzak izan zirelako. 'Non tokatu, han ari' fenomeno nabari izan zen inguruan, lekuko askok halaxe erantzun baitzuten galdetu zitzaizkion nazionalisten ondoan egindako borroka zergatiaz.

garai hori ikertzeko eta zaharregandik zein historiatik ekarpen polita jasotzeko, eta lanari ekin zioten.

AIPAMEN OFIZIALIK EZ Hiru ataletan banatu zen lana. Lehendabiziki Zubietako eta Iruñeko artxiboak arakatu ziren, aztertzeko zer diferentziak zeuden historia ofizialaren eta historia errealaren artean, eta agiriak alderatuta lehen ondorioa bistako samarra izan zen: eragin txikia izan zuten inguruan bai Errepublikak bai eta gerrak ere. Zubietan, kasu, 1931ko maiatzaren 10ko udalbatzan ahabatez adostu zen Alfonso XIII. erregearen erretratoa eta bandera kendu eta Errepublikaren bandera jartzea. Ezer gehiagorik ez. Bi aste berandago erabakitzen da Corpuseko jaietara joango dela aurrerantzean ere, eta udalleteko balakoa apainduko dela. Ez da aipamen ofizialik, ez alderrikapen politikorik.

Lanaren bigarren urratsa izan zen hiru zubietarren —Francisco Juanikorena, bere emaztea Joakina Juanikorena eta Jose Pedrotxenaren— lekukotasunak jasotzea, eta hirugarrena bi lan desberdinekin osatu zuten: Lekarozko Institutuko Gizarte Zientzien Mintegiak prestatutako galdetegi-inkesta batek, alde batek, eta Tipi-Ttapa aldizkarian argitaratutako galdera sorta labur baten bidez eginiko inkestak, bestetik. Aldizkariaren erantzuna oso ona izan ez bazen ere, 76 elkarrizketa burutu ziren hainbat herritan.



Hau da liburuaren zatirik jorriena, orduko giro eta egoeraren berri zehatzena ematen duena delako, eta batez ere testigantza ugariak direlako. Horien bidez antzeman daiteke, halaber, alderdien arteko ezberdintasunak. Garbi dago orduko Baztan-Bidasoa ez dela gaur egungoa, eta harremanak higitz txikiagoak zirela orduan. Liburuan azaltzen denez, jorratu den eremuan be-

reiz daitezkeen sailak ez dira administrazioen, eskualdeen edo haranen arabera zehatzen, baina ekonomia-sektore desberdinek gorpuzten dituzte. Egileek azpimarratzen dute nekazari mundua bazterrean gelditu dela, eta industria eta merkataritza nagusi diren gizarte-ataleak zeresan handiagoa izan dutela garai hartako gora-beheretan. Halaber, esan daiteke desberdintasunak ez direla alderdiek sortuak, baina ekonomiak. Esate baterako, Errepublikak eta gerrak eragin handiagoa izan zuten Bortzirietan, eta bereziki Lesakan eta Beran, bertan langile franko zegoelako garai horretarako, eta langileak, oro har, Errepublikaren alde azaldu zirelako. Bestetik, mugako herrietan —Zugarramurdi, Urdazubi, Etxalar— mugimendu handiagoa bizi zen barrukoetan baino.

BAZTANEN ERAGIN TXIKIA Baztanen, liburuaren bildu diren lekukotasunak irakurritik gero, Errepublika eragin txiki gertaeratzat hartu daiteke. «Hemen ez zen aldaketa handirik sumatu, gauza bakarra eskolan aldatu zen, Kristo kendu ziguten eta bandera aldatu». Oro har giro apolitikoa zela dirudi, gutxiengo batzuen kontua baitzen alderdi politikoena. «EAJ ez zen alderdi politikotzat hartzen» beste lekukok, «alderdi euskalzaletan gisa baizik; hizkuntza, ohiturak, herria eta defenditzen zuten alderditzat hartzen zen, baina politika egin gabe». Beste batek politikoki arerio zirenen arteko giroa aipatu du. «Lehen, Elizondan



Patxiku Juanikorena zubietarra —ezkerretik bigarrena, zutik—, soldadu-lagun batzuekin Cartagenan (Espainia), gerra bukatu eta gero.



ez zegoen hasieratik politikarengatik. Egun bat hartu genuen Errepublikaren aldeko kartelak paratzen ari zen bat, eta gero lagundu zigun gureak, Falangekoak, jartzen, Baztango herri guztietan. Guk gauza bera egin genukeen».

1936ko hauteskundeekin gogortu zen, baina, giroa. Orduan 25 urte zituen emakume batek horrela dio: «Hauteskundetan



Zubietako neska dantzariak. Eskuinetik hasita, bigarrena da Joakina Juanikorena.

jendeak ez zekien zergatik. Azkenean esan zieten altxatu behar zela, 'Gora Espainia' esan nahi zuelako, eta jendea altxatzen hasi zen». Baina lasaitasun itxura azaltzen dute testigantza gehienek. «Erratzun, gerra hasi zenean, eskopetatunak ziren guztiak bildu zituzten plazan, eta munizioa eman zitzaion, zaindari egon beharra zegoela eta. Baina jendeak munizioa erabiltzen zuten ehizatzeke, eta gero kartutxoetan area botatzen zuten». Batzuek alde egin behar izan zuten, baina alkatearen —Burgete abizena zuena— eta apaiazaren —Andres Belzunegi— jarrerara oso garrantzitsua izan zen tentsio apurra desegiteko. «Haiek esan zuten hor ez zela inor hilko, nahiz eta Iruñetik batzuk etorri ziren jendea afusilatzeke asmotan. Apaiaz esan zuten inor hil nahi izatekotan bera hil beharko zutela lehendabiziki, eta ez ziren afusilatutako izan Baztanen». Isunak paratu zitzaizkien, hori bai, nazionalista zein errepublikazaleei.

Errepublika garaian Berroetan eginko mitina. Horrelako gutxi ikusi zen inguruan, baina EAJrenak izan ziren sonatuenak. MENA ARGAZKIAK

Bertzarrena, Malerrenka, eta Bortzirriak, oro har, gune konplexuagoa dugu aurrekoa baino. Ugariak dira bertako berri-emaielen artean desagerpenen lekukotasunak, eta Baztanen baino bortizkeria handiagoa zela nabari da. Berezik Lesakan eta Beran, han franko ziren Errepublikazaleak, eta lekukotasunetatik antzeman daiteke egitura politiko berriak ekarri zituen aldaketek ideia aski garbia zuten jendea ikusi orduko, eta

zuzena ere izan zuten orduko gatazketan, eta astoa zuten orok joan behar izan zuten gerraren lehen hilabetean Irungo San Martzial aldera, menditik gora munizioa eta garraiotzera. Tragikotasuna ere bada arrunt heanean, eskopetatunak ziren guztiak bildu zituzten plazan, eta munizioa eman zitzaion, zaindari egon beharra zegoela eta. Baina jendeak munizioa erabiltzen zuten ehizatzeke, eta gero kartutxoetan area botatzen zuten». Batzuek alde egin behar izan zuten, baina alkatearen —Burgete abizena zuena— eta apaiazaren —Andres Belzunegi— jarrerara oso garrantzitsua izan zen tentsio apurra desegiteko. «Haiek esan zuten hor ez zela inor hilko, nahiz eta Iruñetik batzuk etorri ziren jendea afusilatzeke asmotan. Apaiaz esan zuten inor hil nahi izatekotan bera hil beharko zutela lehendabiziki, eta ez ziren afusilatutako izan Baztanen». Isunak paratu zitzaizkien, hori bai, nazionalista zein errepublikazaleei.

Bertzarrena, Malerrenka, eta Bortzirriak, oro har, gune konplexuagoa dugu aurrekoa baino. Ugariak dira bertako berri-emaielen artean desagerpenen lekukotasunak, eta Baztanen baino bortizkeria handiagoa zela nabari da. Berezik Lesakan eta Beran, han franko ziren Errepublikazaleak, eta lekukotasunetatik antzeman daiteke egitura politiko berriak ekarri zituen aldaketek ideia aski garbia zuten jendea ikusi orduko, eta

«Garai hartan Baztan-Bidasoan ideologiak izan zuten pisu eskasa izan daiteke, seguraski, lantxo honen ondorio garrantzitsuenetarikoa bat». Halaxe diote liburuaren egileek, eta halaxe antzeman daiteke testigantza gehienetan. «Orotara, kanpotik datorren eztabaidari kanpotik ematen zaio erantzuna. Ajente pasiboak baizik ez dira bertakoak!».

Zamoranoak

● Hala deitzen zaie herrira denetarik saltzen heldu direnei, segurki etorkia Zamoran zutelakoz. Egun gehienak Tafalla aldekoak dira, Iruñekoak eta batto zamorano autentikoa. Salgaien artean bada denetarik: jantziak, mandiriak, berokiak, txanoak, galtxuinak, ohialak, zapatak, mudak, ontziak, xaboiak, tresnak... zernahi.

Behiala gehiago ziren eta ardurago ere etortzen; jendea anitzetan haien igurkian zen beharrezko zerbaiten erosteko, Garazi urrunko eta Iruñea urrunago egonik. Egun etxe guztietan bada kotxea eta noiznahi joaten da Iruñeko saltoki handietara; horregatik harrigarri zaigu noizanpeka ikustea beren kamioneta xaharretan nola heldu diren dituzten gaiak saldu beharrez, merkatuko azkenak (eta hoberenak) bailiran. Halere hor daude, tematsuak, Biurrun, Biskarret, 'el Riau', Rosino, Zamoranoa... Baina hauek ez dira herrietara zerbeit eskeintzen etortzen diren bakkarrak, zenbeit arotan (oraiokan konparazio) politiko batzu ere dira ageri, edo haien manatarriak, 'balizkoak' eta 'lukeenak' hedatuz esker-eskuin (zilegi begiku koordinada geografiko hauek erabiltzea honako gain), erran nahi baita: urlia hautatua izanen balitz, egiten luke... Zamoranoen gisara aritzen dira salgaiak goraki iragarritz herrian barna eta horren truke sosa/botoak eskatuz. Zamoranoak bezala zoko guztietara ailegatzin dira eta jende oro goartarazten dute, nahi ta ez, haien 'balizkoak' eta 'lukeenak'. Hauei ere behar zaie eskertu, zeren egun jende gutxi hurbiltzen beita herrietara zerbituzen eskeintzen.

Baina desberdintasunak ere badaira politiko eta zamoranoen artean. Erosita-koa txarra ateratzekotan, engainaturik bazira sentitzen, aixa helaraziko da koku xexua zamorano bati, ondoko hilabetean beita berri etorriko ttuku-ttuku zure etxe atarira. Politikoen kasuan, aldiz, zailagoa da; lukeenak huts egitekotan (ardura gertatzen ohi dena bertzele)... egon zite xarrik, luzerako dae ta. Zerengatik? Ez direlako herrietara berri bilduko hurrengo lau urteetan... eta burua atzenkor dugu, arras. Orduan, gainera, aditzeko baino (sogorria geitza pairatzen dute gaizok!) beren 'lukeen' zaharrak berriak bailiran saldu beharrez soilik zaizkizu etortzen.

Zamoranoek salgaiak berri-ritzen dituzte, noizapenka bedere.

Emazteak engainatuta

Galdera: Jaun Dotorea. Uste dut nere emazteak engainatzen nauela. Euskaldun peto-petoa naiz, eta euskal ohikotasunari estu-esturik naxekio. Zer egin beharko nuke nere emaztea berbihotzeratzeko? Mese-dez, emaidazu jarraitzeko bidea, Euzko Gogoan ondo erroturik.

Erantzuna: Hasteko Oihenarten hitz bi: *Emaztearen gaizes xikira sedina, adarrequi ehorz sedin.* (Emazteaz fido dena, adarrekin ehorzten dute). Segitzeko Oihenarten poema bat, euskara batu desitxurosoan: *Ondasunen truk hutsean, hala ezkontzen!, ez da hori ezkontzea, baizik da saltzeal haren erosle senarrak! zer merezi luke?! Adarrak.* Eta bukatzeko Mikoleta Bilboko eliz-gizonaren aipu bat: *se da cuydadu ascogas, ydoro asquero oy dauela damu? Adarrac yminiten badeusas Emasteac.* Afer honetan ere hobe duzu alde zurretik berigatzea, gerokoetan konpontzen saiatzea baino.

Galdera: 47 urteko mutilzahar bat naiz. Carnicas Betelun lan egiten dut, eta kontexko bizi nintzen, ene ama, nere etxean harik eta amak kristautasuna zinautsi eta Hare Krisnaren sinesmena besarkatu artio. Nik, egiatan, ez dut inongo aurreritzirik erlijio aferetan, eta sinismen oro onartzekoak dira oro har. Baina, ene ama, egun osoa Carnicas Betelun emandakoan, etxera etorri, eta musika errepikakor hori behin eta berriro, ene ama, aditu beharra, eguerdiko babazalak amak berotzen dizkidan bitartean, jasanezina, egiatan, jasanezina, joder. Zer egin behar, musika horretaz libratuko banaiz?

Erantzuna: Mutilzahar maittea. Ziur aski estrategia bat baino ez duzu hori. Triste askoa da ama batentzatko 47 urteko mutilzahar bat etxean izatea. «Noiz ezkondu behar duk-ka» urtetan eta urtetan ibilitakoan, bestelako estrategia martxan ezartzea erabaki du. Ezkon zaitez eta ikusiko duzu zein bizkor baztertzen dituen kantu laranja



«Afer honetan, bestetan bezala, hobe duzu aurretik begiratzea, gerokoetan konpontzen saiatzea baino»

errespetagarri horiek. Fisiologikoki eta filosofikoki amek akats bat daukate. Gazte zarelarik, 18 urterekin esate baterako, ez zaituzte etxetik kanpo ezorduetan ikusi nahi. 50 urterekin, berriz, neskatarra edota mutiletara bidaltzen zaituzte amek. Eta jakina, 40 urteak ederto pasatuak garenok badakigu garai horretan akrobaziak egiteko lehenagoko sasoa ez dugula.

Galdera: Gizon bat hil nuen dirua eta emakume bat eskuratzearren. Orain ez daukat ez diru, ez emakume. Emakumea hiltzaile bat zen, ez dago bueltarik, eta ziri ederra sartu zidan. Beste gizon batengan heltzeko erabili ninduen; eta ni kometa baino gorago zintzilikarzteko adina badaki nitaz. Algaraka hasten naiz frankotan, orain, eginda-koaz jabetzean. Emakume batengatik gizona hil... Emakume horren eskuetan jarri dut nere burua; berarengatik hori egin ondoren, ez dut sekula santan berriro



«Amek akats bat daukate: 18 urterekin ez zaituzte etxetik kanpo ezorduetan ikusi nahi. 50 urterekin neskatarra bidaltzen zaituzte».

aurrean ikusi nahi. Aski da bildur izpi bat amodioa gorroto bihurtzeko, eta ni aspaldian naiz muga hori gurutzatua. Zer egin nezake?

Erantzuna: Joan den hilean, Iruñean 'Ernesto izatearen garrantzia' taularatu zuten. Lan ederra Maskarada taldearena. Ernesto izatearen garrantzia. Ernest eta *earnest* modu berean ahoskatzen da. *Earnestek* 'zintzo' esan nahi du. Zintzo izatearen garrantzia. Zintzo izatearen garrantzia, jauna.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Meagher aitaren euskal bertsoak

Benetan aunitzak izan dira euskaldunen eitea deskribatzeko ediren daitezkeen aipamenak edota deskribapen bitxi zein idurimen sukurrezkoak baina historia ofizialarat oso osorik pastu direnak. Oroit bedi bestenaz eta eredu gisa besterik ez Aimery Picaud beilari frantsak XII. mendean ondu *Codex calistinus* gidan zakarra: *'Si illos comedere videre canibus edentibus vel porcis eos computares'*. Alabainan ene iduriko zerbait bada euskaldunen azalgarri zurrut egiteko gustu mina litzate, eta Voltairek dantza zela eta Euskal Herriaz esan zuenari jarraikiz, aisa esan genezake euskaldunak Pirinio bortuetako hegitan edaten duen herria dela, bai ondikotz! Halere badira horrelako ospe bereganaturik duen herraren bat edo beste, esaterako herri zeltak, eta hekien artean irlandarrak. Beraz zer gerta liteke bilbe biak pertsona berean bartzekotan? Eta lortu horri apez izatea gehitzen badiogu? Alta hori bada gaurkoan plazaratzen duguna, Domingo Patrizio Meagher lagundiko aita alegia.

Patrizio Meagher izeneko merkataria irlandarrak Donostian ezarri zuen bere egoitza XVII. mendean. Horrelakorik arruntak izan ziren gure historian zehar. Ezin da ahantzi Europako kontrareformaren gune garrantzitsuenen artean Espainia eta Irlanda zaudela, kristau sutuak. Eireko historia galtzaileen historia dugu, euskaldunena legez. Betiere alde okerrean egon dira, Enrike VII, Estuardo edo Jakobo erregeen alde Cronwell edo Orangeen aitziz zeharo garaituak izateko. Ez hortan soilik euskaldunen miraila dugu irustaren semealabak. Garai batean euskara eta gaelikoa etorki berekoak zirelako ustean zauden ikerlari bat baino haboro, eta kasuren batetan irlandar izaera erakustea nahikoa zela euskaldunak bezala aitonen seme izateko aldarrikapenak egon baziren.

Jose Manterola Beldarrainek 1878. urtean Donostiako Juan Osesen moldiztegi argira ematen duen bere *Cancionero Vasco: poesias en lengua euskara reunidas en colección, ordenadas en series y acompañadas de traducciones castellanas, juicios críticos, noticias bibliográficas de los diversos autores y observaciones filológicas y gramaticales* izenburu luze xamarreko idazkiaren hirugarren liburukiaren lehenbiziko sailan, hau da, *poesias festivas y satíricas* deiturikoan, gure lagundiko apezaren berri ematen digu hagitz naroki ez izan ere. Bertan 1870. urtean Tolosan eta Modesto Gorosabalen etxean egile izenik gabe agerturiko *Vida de algunos claros varones guipuzcoanos-de-la-Compañía de Jesús* lan adimentsutik datuak xurgatu izana onartzen du Do-

nostiako bibliotekariak.

Domingo Meagher Donostian sortu zen 1703. urteko epailaren 17an, eta hamalau urte zituela bere anaia zen Danielekin Jesusen lagundian sartu zen, urriaren 14an hain zuzen ere. 1736. urtean Donostian bertan profesioa egin zuen, Filosofia katedratikoa izan zen Konpostelako Donejakuen eta Teologiazko irakasle Valladoliden eta Salamankan aritu zen. Lan ugari izkiriatu omen zituena, hala nola, Valladoliden egin zen San Luis Gonzaga eta San Estanislao de Kostkaren kanonizazioarako olerkiak, Isla aitak ondu Kanpazasko Frai Gerundiori buruzko olerki satirikoak, 1760 eta 1761. urteetan Frantzia lagundikoen aurka agertu ziren liburuei iruzkinak, baina paper ugari galdutaz jo beharko da Lagundikoen kanporaketaren ondorioz. Hauze gauzatu zenean, 1767. urtean, Florenziarako bidetari eutsi zion, bertan 1772. urtean hil zelarik.

Euskaraz poliki zekien, eta 1902. urteko *Euskalerrria* aldizkariaren bigarren zenbakian irakur daitekeen artikuluak batetan agertzen den bikala Donostiako etxeko lekeide guziak Italiara joateko itsasontziaren zai zaudelarik, atsekabeak jota, malkonegarbizi batetan itota, gure Txomin *na h-éireann* gurutzeta eskutan harturik, hain prediku ederra egin zen euskaraz, ezen ixilune artega astunak hor zauden pertsonak oro garaitu zituen.

Ez da ezaguna xahutu idazkien artean euskal idazkirik ote zirenentz, ezta egotekotan horren gai zehatzik, eta egun dugun aztarna bakarra Manterolak jaso bertsoak ditugu. Hauexek biziki eri zagoelarik izkiriari omen zituena, sendagileak non-bait bere gaitza arintzeko aitzakiaz eman zion osagarri esker onez. Izan ere ardoaren gorazarra eta laudorioz sorturiko bi olerkiak baitira. Bata zortziko txiki eder bat gizona berpizteko ardoaren poterea lausengari: *Gizon bat ardo gabe! dago erdi hila! marmar dabilzak tripak! ardoaren bila baina edan ezkerol ardo txit onguil gizonik txatarrenak! balio ditu bi*. Bestea hamar ahapaldiko ardoaren omenezko gorrespen irmoa: *'Ni naiz txit gauza gozala eta pozkida osoal beltza naiz eta zurial iluna eta argial indarra det eta garbial eta izena det ardo'*. *'Edari maitagarria! tristearen alegria! dezu alaitzen begial! kentzen melankonia! mutuba ipintzen kantari! eta errena dantzari'*. *'Jateko ez badago gogorik! eta ezin egin lorik! eritasun oben! edo beste edozeñen! kuratzeko balsamo! da mahats onaren zumo'*. *'Ardo edanik neurri! behin hila pizten du berri! baina bada hasitzen! belaunak limuritzen! eta irakiten buruban! ez da gauza onik orduan'*.




■ 'Iruñeko Hiria' xake torneo itxiko zortzigarren ihardunaldiko partida. 1995ko urtarrilaren 4an jokatu.

Jesus De la Villa, 2.490 ELOkoa (Euskal Herria)-Vasselin Topalov, 2.645 ELOkoa (Bulgaria). 1.e4,c5; 2.c3,d5; 3.d5,Dd5; 4.d4,Zf6; 5.Zf3,Ag4; 6.Da4 xa,Ad7; 7.Db3,d4; 8.Ac4,De4 xa; 9.Ef1. Txuriek zeozer saiatu nahi dute, partida nahastu. Nahiz eta beren erregea kili-kolo utxi. 9...e6; 10.Zd4,Zc6; 11.Zd2,Dg6; 12.Db7,Gd8; 13.Dc7,Gc8; 14.Dg3. Emandako peoia erraz berreskuratuko dute beltzek. 14...Zd4; 15.Dg6,h-g6; 16.d4,Ab4; 17.b3,Ac3; 18.Gb1,Ad4; 19.Zf3,Ab6; 20.Ab2,Ze4. Erregearen posizio txarra are gehiago okertuko da. Txurien puntu ahula da.

21.Ee2,Zf2; 22.hG-c1,Zg4; 23.Ag7,Gh5; 24.h3,Ze3; 25.g4. Irtenbiderik ez zuen peoi horrek. Orain txuriek eraso egim omen dezakete.

35...Gh3; 26.Gh1, Gh1; 27.Gh1,Zg4; 28.Gh4,e5; 29.Zg5,Ee7; 30.Gh7,Af5; 31.Ah8,Gf8; 32.Af7,Zf6; 33.Gg7,Zh5; 34.Gh7,Zf4 xa; 35.Ef3. Ikus Koadroa. Buakeraren hasiera da. Beltzek zehatz jokatu behar dute. 35...Gh8; 36.Gh8,Ef6; 37.Ag6,Zg6; 38.Gh5,Zf4; 39.Zh7 xa,Ah7; 40.Gh7,Ze6; 41.Gh5,Zg5 xa; 42.Eg4,Zf7; 43.a4,a5; 44.Ef3 Ee6; 45.Ee4,Zd6 xa; 46.Ed3,Ed5; 47.Gg5,Ac5; 48.Gh5,Ab4; 49.Gg5,Zb7. Peoiaren sarrera geldiezina da. Txuriek partida utzi zuten.



Euskarak Nafarroan egun duen egoera ezagutzeko lan aproposa aurkeztu du aste honetan Paquita Zabaleta Hizkuntz Politika Saileko Programazio Zerbitzuko buruak. Bertan, 1991ko eroldako datuak azaltzen dira, euskarari buruzko ehuneko eta datu ugarien bidez.

Euskara: mantso baina aurrera

T. SATRUSTEGI / IRUÑEA

'Euskara Nafarroan. 1991ko biztanleriaren eta etxebizitzaren eroldaren datu soziolinguistikoak' izeneko lana aurkeztu berri du Paquita Zabaleta Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiko Programazio saileko buruak. Liburu mardul honetan azken eroldan euskararen inguruan atera ziren datuak agertzen dira, taula eta grafiko ugarien bidez. Liburu honekin batera beste bat prestatzen ari dira, laster aterako dena, datu hauen analisiarakin. Bi lan hauekin Nafarroako mapa soziolinguistikoa osatuko da.

Datu hauen arabera, osotara Nafarroako biztanleen % 16,64 euskaldunak edo ia euskaldunak dira. Horietatik % 10,2k ongi hitz egiten dute euskaraz eta % 6,3k badaki zerbait baina ez du hitzik egiten ikasten ari delako edo euskara galdu duelako. Era berean, berreskurapen prozesua ikus daiteke datu hauetan, Zabaletak datuen aurkezpenean aditzaera eman zuenez. «Egoera soziolinguistikoan seinale kezkarriak eta itxaropentsuak agertzen dira. Batetik, euskara hizkuntza minorizatua da oraindik, baina bestetik, eten egin da euskararen galera eta aurrera doa berreskurapena, mantso badoa ere».

Euskara hizkuntz minorizatua da oraindik, baina eten egin da bere galera, eta aurrera doa berreskurapena, mantso badoa ere».

garrantzitsuena. Alde honetatik, Paquita Zabaletak adierazi zuenez, «euskararen transmisio familiarra orekatu egin da erabat». 1991n 83.245 elebidun zeuden Nafarroan, eta horietatik % 46,07rentzat euskara lehen hizkuntza zen, % 41,09rentzat bigarren hizkuntza eta % 12,01 familia elebidunetan bizi ziren.

Paquita Zabaletak ateratako lan honetan 1986ko eroldan euskarari buruz zeuden datuak ere aztertu ditu, 1991koekin alderatzeko. Alde honetatik adierazi zuen eboluzioa «positiboa» izan dela: «Erakusten du berreskurapen prozesu geldirik mar txan dagoela, eta, noski, datuak garrantzitsuagoak dira adin txikiko taldeetan besteetan baino». 1986an sartu zen lehen aldiz eroldako galderetan euskararen ezagutza maila, baina orduko datuak ez dira ondorengoak bezain zabalak eta zenbait datu ezin direla konparatu nabarmendu zuten inkestaren arduradunak.

ke, 35 eta 49 urte bitarte dituzten artean euskararen ezagutza orekatu egiten baita, eta hamar urte gazteago direnen artean elebidunen kopurua handitu.

Zona euskaldunean, berriz, beranduago hasi zen prozesua, eta berreskurapena 16-17 urte bitarteko gazteen artean hasi zen, egun adin horretako % 74,3 elebidunak baitira eta % 60k euskaraz ongi dakite. Kopuru hauek zona horretako orokorrak baino altuagoak dira. Eskualde honetan indar handiagoa du euskarak, batetik euskaldun gehiago dagoelako hizkuntza transmititzeko orduan, eta bestetik, legeak ere erraztasun handiagoak eskaintzen dituelako. Zona ez-euskaldunean mistoan gertatzen den antzeko prozesua hasi zen baina, noski, askoz kopuru txikiagotan, erdaldunen kopurua oso handia baita eta legeak ez duelako laguntzarik ematen. Bestalde, euskara ikasteko dauden moduak ere aipatzen dira soziolinguistikako lan honetan. Zonen artean ezberdintasunak ikus daitezke. Horrela, zona euskaldunean transmisio familiarra indar handia du, baita hezkuntzak ere. Zona mistoan eta ez-euskaldunean, berriz, hezkuntza da ikasteko bide

garrantzitsuena. Alde honetatik, Paquita Zabaletak adierazi zuenez, «euskararen transmisio familiarra orekatu egin da erabat». 1991n 83.245 elebidun zeuden Nafarroan, eta horietatik % 46,07rentzat euskara lehen hizkuntza zen, % 41,09rentzat bigarren hizkuntza eta % 12,01 familia elebidunetan bizi ziren.

Paquita Zabaletak ateratako lan honetan 1986ko eroldan euskarari buruz zeuden datuak ere aztertu ditu, 1991koekin alderatzeko. Alde honetatik adierazi zuen eboluzioa «positiboa» izan dela: «Erakusten du berreskurapen prozesu geldirik mar txan dagoela, eta, noski, datuak garrantzitsuagoak dira adin txikiko taldeetan besteetan baino». 1986an sartu zen lehen aldiz eroldako galderetan euskararen ezagutza maila, baina orduko datuak ez dira ondorengoak bezain zabalak eta zenbait datu ezin direla konparatu nabarmendu zuten inkestaren arduradunak.


NAFARROAKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA 1991. URTEAN

HIZKUNTZ GAITASUNA				ALFABETATZE MAILA			
Biztanle elebidunak				Biztanle elebidunak			
Ulermena	Ongi	59.138	11,82	Euskaldunak	Alfabetatu gabe	7.949	1,59
	Nekez	23.705	4,74		Partzialki	13.874	2,77
Mintzamina	Ongi	51.147	10,22	la euskaldunak	Alfabetatuta	29.329	5,86
	Nekez	20.096	4,02		Guztira	51.147	10,22
Irakurmena	Ongi	35.487	7,10	Alfabetatu gabe	7.859	1,57	
	Nekez	24.094	4,82	Partzialki	11.600	2,32	
Idazmena	Ongi	29.324	5,86	Guztira	Alfabetatuta	12.237	2,45
	Nekez	21.435	4,28		Guztira	31.696	6,34
Guztira 83.245 16,64				Guztira 82.843 16,40			
Biztanle elebaker gazteleradunak 417.005 83,36				Biztanle elebaker gazteleradunak 417.407 83,44			
Biztanleria guztira 500.250							

HEZKUNTZ GAITASUNAREN BILAKAERA ESKUALDEKA

Biztanle elebidunak		Nafarroa	Eskualde euskalduna	Eskualde mistoa	Eskualde ez euskalduna	Iruñea
		%	%	%	%	%
Euskaldunak	Alfabetatu gabe	-0,2	-2,0	-	0,1	0,1
	Partzialki	-0,6	-3,1	-0,2	-	-0,3
	Alfabetatuta	0,8	6,3	0,1	0,2	0,1
	Guztira	-	1,2	-	0,3	-0,1
la euskaldunak	Alfabetatu gabe	-0,2	-0,4	-0,4	0,1	-0,6
	Partzialki	1,1	1,3	1,6	0,2	1,9
	Alfabetatuta	0,2	1,1	-	0,2	-0,3
	Guztira	1,1	2,0	1,3	0,5	1,0
Biztanle elebaker gazteleradunak		-1,1	-3,2	-1,3	-0,8	-0,8

HIZKUNTZ EREDUEN ESKAKIZUNA ESKUALDEKA



«Ez dugu nahi pintura aberatsentzat»

LUTXI FOURCADE / AHATSA

EGUNKARIA.—Lehen galdera, arrunta, usaian egiten dena, nondik heldu zarete?

ANNABEL GAY.—Nahiz eta Parisen sortu, Euskal Herrian erroak ditut familia Miarriztarrara baita. Ene laguna, aldiz, Chartres hirikoa da. Opor guztiak senideen etxean iragan ditut eta ene ametsa zen betirako itzultzea herrira, euskalduna errotik senditzen naizelako. Mugarren luzaz bizi izan

jarri zolua erabat lautzeko. Egurrezko habeak tratatu, pareta xuriz tindatu, gunea prest zen gure pinturak erakusteko.

EGUNKARIA.—Zergatik hartatu duzu Ahatsan bizitza, erakustokia Baxe Nafarroko xoko honetan eginez?

ANNABEL GAY.—Lehen, Britainian lan egiten genuen batez ere arte erakustokiekin. Ez dut zalantzan jarri nahi sistemaren eraginkortasuna artista batenzat, baina ez zen gure gusto-

edo 'hiper-realista' hobeto erran nezake, biziarraren gaitu. Baina ondoan egiten ditugu obrak surrealista, gure ametsak gauzatzeko ere. Pintura errealista erabiltzen dugu surrealismoa egiteko, baina bihotzez ez da dudarik gehiago laketzen garela surrealismoa eginez. Dudan ginen erakustokian obra surrealista erakusteko baina erabaki genuen pareta osoa dedikatzea prezio berezi honi eta ez dugu damutzen. Herriko biztanleak

materiala desberdina erabiltzen dituzue?

JYPE GAY.—Britainian ginearik arbel gainean tindatzen genuen, nun nahi aurkitzen genuelako. Bestalde, egurra edo oihal arruntak baliatzen ditugu. Duela urte pare batzuz, hasi gara pilotan erabiltzen palak tindatzea ikusiz lagun batentzat egin genuena pareta zintzilikatu zuela pollita atxeman zuelako. Pentsatu dugu bazela merkatua eta geroztik produktua arrakastatsua bilakatu da. Ezagutarazi gaitu eta jende ainitz etortzen dira gure gana aurpegiaren tindatzeko paletan. Euskal Herria tindatzeko materiala egokia iduritu zauku, ur txortaren formarekin, ilusioa ematen du sarrailaren zilotik sekretua begira-



Artistak, amentsetako beren tokian.

LUTXI FOURCADE

gara eta egun batez aurkitu du gure jabe gisakoa, prest zena senideen etxea alokatzeko Ahatsan. Aspaldiko asmoa zen antzeko tokia atxemaitea, etxe txipia genuelako kostaldean. Ez genuen paradarik gure pintura erakusteko ezta ere harrera egokia egiteko bezeroei. Tindatzen genuen sukaldetan, haurrekin beti zangoetan. Etxea hartzeko aukera izan dugunean berehala hartu genuen eta ikusi bezain fite jakin dugu hautu ona egin genuela.

EGUNKARIA.—Lehendabiziz, etxea antolatu duzue erakustokia egiteko?

JYPE GAY.—Etxea estatu onean zen baina obrak abiatu genituen barrukia arraberritzeko tokia egokia zen gure proiektuarentzat. Lehenik arroila eta pareta txikiak hautsi genituen eta zementoa

koa. Prezioak % 60z goratzen dituzte, jende ainitz baztertuz toki horretarik prezio garestiegi direlako. Ez dugu onartzen pintura aberatsentzat izan dadila, beste arte guztiak karrikara jausten direnean eta gure asmoa zen herritik ahal bezain hurbil tindatzea. Barrukia antolatu ginuen helburu honekin, harreman bero eta xoilak egiteko jendeekin, denbora batentzat gure pintzelak utzirik eta kafea eskainiz. Bertan tindatzen dugu eta gogotik gure lana aipatzen dugu, sare eraginkor eta anonimotatik kanpo. Funtsezko zen guretzat barnekaldean bizitzea zeren kostaldea maite arren, euskal arima arrunt galdu da. Hemen, aldiz, bizirik dirau.

EGUNKARIA.—Nola definienezake zure pintura?

JYPE GAY.—Estilo errealistak,

sartu direnean lehen aldikotz, beste ekoizpen guztia begiratu dute baina pareta honen aurrean luzaz egon ziren eta uste dut gustatu zitzaizela.

EGUNKARIA.—Erakusgunea izan arren, hala ere segitzen duzue zure pintura ateratzen eta kanpoan erakusten?

ANNABEL GAY.—Ahal bezain erakusketak egiten ditugu, mugaz bi aldeetan jendeekin dugun harremana paregabekoa baita. Egia da mugaz bestaldean dugun harrera zinez ona da eta atxiki dutela pintura-entzat zaletasun eta gusto handia. Pinturaren aurrean laketzen dira. Edozoin herri txikiak erakusketan, jende ugari biltzen da eta ofizialeen pieza bakoitxak begiratzen dituzte, hurbiletik. Plazer ematen du, hemen baino amateuragoak baitira.

EGUNKARIA.—Gaia baita ere

tzen duzula.

EGUNKARIA.—Gaien aldetik, hautu zabala eskaintzen duzu, irudi klasikoak edo adierazpen zorrotzagoak tindatuz?

ANNABEL GAY.—Surrealismoan bezala gertatzen da: senditzen duguna pintatzen dugu. Gauza zinez ederrak ditugu Euskal Herrian pintatzeko baina ez dugu baztertzen ahal herri honen beste arpegiak eta guretzat garantzitsua da jendei mezua pasarazi. Adibidez, ikurriña xehatua alambren gainean tindatu genuen Euskadi bi partez zatikatua zela mugarengatik Adierazteko. Jende batzuk haserretzen dira holako gauzak ikusten dituztenean Baina bost axola zaigu, ez ditugu begiak itxi nahi eta hola segitzeko asmoa dugu.

Annabel eta Jype Gay

PINTOREAK

SOSLATA

Karrikako pintoreak

Annabel eta Jype Gay artista-pintoreak ditugu. Duela sei hilabete, erakusgela ideki dute Ahatsan, Iratikotik bidean. 'Barrukia' izena eman diote, behiak aterbetzen baitziren toki honetan etxaldea zenean. Etxea arripiztu dute gure bi artistek eta bertatik iragaten diren ikusleek beraien obrak ikusteko parada dute toki lasaian, hiriaren kalapitatik ahal bezain urrun.

Harreman bero eta xoilak egin nahi dituzte jendeekin, pintura karrikara jautsi behar baita beraien iduriz eta ez arte erakustokietan baizik erakutsi. Emeki bada emeki, beraien lana ezagutarazi dute euskaldunen artean, Euskal Herriko arpegi desberdin ugariak eskaintzen baitituzte materiala desberdina baliatuz.

Arraroa izan arren, udako turistek beraien ekoizpena ez dute gustokoa. «Joko Garbia ezik, ez dute pilotan ezerezagutzen eta ez dakite zer diren palak» Annabelek irriñoarekin zioenez. Hala ere, aukera ona du turistak erakustokira hurbiltzen direnean benetazko klaseak emateko.

Berarekin luzaz mintzatu ondoren, amets sekretua zeukala aitortu zuen Annabelek Mattin Partarrieu margolariaren ezagutza aspalditik egin nahi baitluke. Hots, ohartu zelarik era berean antzeko marrazkia egin zutela biek, elkar ezagutu gabe, gogoa izan du Hazparneko artistekin elkartzea. Mattin Parisen dago eta Annabel Ahatsan baina ez da dudarik egun batez beraien bideak kurtzatzuko direla.

NOSKI JATOR

© zaldi EROA

IRAUTZAK PHILOSOPHATZEN DU. («NO MORE PHILLAS FIGHT!»)

